

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak eskainiko duen zerbitzua gaueko autobusen garraioa da, modu honetara, jendea gauetan erraztasunez mugituko da eta ez du inongo arazorik izango etxera itzultzeko. Gainera, gazteen menpekotasuna gutxiagotuko da, hau da, ez dute beharrezkoa izango gurasoen laguntza. Horrela, onurak guraso eta gazteentzat izango dira. Zerbitzu honek hainbat arazo konpontzen lagunduko digu, esaterako; parrandatik bueltan istripuak izateko aukera murriztea, etxera bakarrik ez itzultzea, gurasoak bueltaka ez ibiltzea...

Gure lehiakideetako bat taxi zerbitzua izango da, baina honetatik bereiziko gaituen hainbat ezaugarri daude, alde batetik, taxia oso garestia izaten da, pertsona batek ordaindu behar duen diru kopurua askoz ere gehiago izaten da autobus zerbitzua erabiltzen duenean baino. Bestalde, gazte talde batek nonbaitera joatea pentsatu badu eta kopuru handia bada, taxi bakarrean ez dira denak sartuko, beraz gure bulegora deitu eta guk aukera emango diegu gure zerbitzua erabiltzeko. Gainera, ordutegi ezberdinetara egokituko gatzaizkie.

Gure artean egingo ditugu funtsezko itunak, Martin eta Izarneri gidatzea asko gustatzen zaienez eta gaitasuna dutenez baliabide hori jarriko dute. Jaionek administrazio gisa duen abilezia eskainiko du. Denon artean banatu dugu lana.